

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernua Nafarroako Memoria Historikoko Lekuak babesten hasi da

Memoria Historikoaren arloko Koordinazioko Batzorde Teknikoak lehen zerranda bat onartu du, eta zerranda horretan beste leku batzuk sartzen joango dira

Ostirala, 2019.eko otsailak 1

Nafarroako Gobernuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazioko Batzorde Teknikoaren bilera berri bat egin du gaur goizean, eta Nafarroako Memoriako zenbait Leku era horretan aitortzeko prozedurari hasiera eman zaio, espazio horiek babestu, kontserbatu, seinalezatu eta hedatzeko lana egitearren.



Ostiral honetan egin den Batzordearen bileraren momentuetako bat.

Bilera Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Ollok zuzendu du, eta honako hauek hartu dute parte: Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako zuzendari nagusia, Alvaro Baraibar; Nafarroako Memoriaren Institutuko zuzendaria, Josemi Gastón; Eloísa Ramírez (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Patxi Caspistegui (Nafarroako Unibertsitatea), Olga Alcega eta Ana Barrena (memoria-elkarteen ordezkari gisa), Martin Zabalza (Nafarroako Parlamentuaren ordezkari gisa) eta Iñaki Pradini (historia, auzitegiko medikuntza eta arkeologia arloekin zerikusia duten erakunde profesionalen ordezkaria).

Azken bilera urriaren 2an egin zuten, eta ordutik hona Memoria Historikoaren inguruan Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Memoriaren Institutuak bultzatutako eta egindako aurrerapenak ezagutu ahal izan ditu Batzordeak. Beste ekimen batzuen artean, Gorpuak hobitik ateratzeko 2019ko Planaren berri eman dute, Nafarroako Memoriaren Institutuak koordinatua memoria-elkartekin edota lapurtutako haurtxoen inguruan emandako urratsen berri ere eman dute, arrazoi hori medio Memoria Historikoaren Legean aldaketa bat egin zen.

Memoriaren lekuak

Batzorde hau da Nafarroako Memoria Historikoko Lekuak aitortzeko eskumena duen organoa. Aurreko bilera batean, Batzordeak Memoriako Lekuen Behin-behineko Errolda onartu zuen, eta guztira 23 leku bildu ziren, 1936ko kolpe militarren ondoren gertatutako Giza Eskubideen urraketekin edo biktimen memoria eta erreparazioarekin duten harreman

ezberdinarengatik. Gaurko bileran, Batzordeak erabaki du ondorengo espazioak memoriako lehen leku bezala aitortzeko prozesuak abian jartzea:

1. Sartagudako Memoria Parkea. Parkea memoria-elkarteek eraiki zuten Sartagudako Udalaren lankidetzarekin, eta biktimen oroitzapenaren eta memoriaren ikur bilakatu da haren 10 urteko bizitzan.

2. Alfontso XII.aren edo San Cristobalen gotorlekua (Ezkaba). Frankismo garaiko errepresioaren ikurra da. Presondegian pertsona asko hil ziren, eta 800 bat presok ihes egin zuten 1938ko maiatzaren 22an.

3. Teileriako hobia (Elo). Nafarroako hobi arrunt handienetarikoa da, eta memoria aldarrikatzeko memoria-mugimendu garrantzitsua bultzatu du.

4. Valcarderako hobia (Cadreita). Halaber, hobi oso anitza. Han lurperatutako biktimak bigarren berbiktimazio baten xede izan ziren, 50eko hamarkadan Erorien Haranera eramanez baitzituzten.

5. Otsaportilloko amildegia (Urbasa Mendilerroa). Amildegi horretan oraindik ez dakigu zenbat biktima bota zituzten. Hamaika pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu ahal izan dira, eta lekuak hainbat eraso jasan ditu.

6. Olabeko hobia. Orain arte ugariena (16 biktima), Ezkabako 1938ko ihesekeko pertsonak, eta Nafarroako mugak gainditzen ditu, penintsulako beste puntu batzuetako presoekin eragitean.

7. Igaritik Bidankozerako errepidea. Frankismoaren erabileraren eszenatokirik esanguratsuenak, presoak erabili zituztelako obra publikoak eraikitzeko.

8. Erreniegako Hilobien Memoriala. memoria-elkarteek sortua; 36ko biktimen memoriaren eta erreparazioaren lekurik sinbolikoenetarikoa da.

9. GR-225, Ezkabako ihesaren ibilbidea (San Kristobaleko presondegitik Urepeleraino). Nafarroako Gobernuak elkarrekin eta herritarrekin elkarlanean bultzaturiko mendiko ibilbidea da, Ezkabako presoen urratsak jarraitzen dituen Frantziara ihes egiteko ahaleaginean.

10. Emakumearen errepresioaren memoriaren eskultura (Azkoien). Kolpe militarren ondoren eta diktadura frankistan zehar emakumeak jasandako errepresioa sinbolizatzen duen obra da.

Lekuen hautapen hau frankismoaren errepresioaren errealitate ezberdinak kontuan hartu nahi izan dituen lehen urrats bat da, Nafarroako Memoria Historikoko Lekuak babesteko, kontserbatzeko, seinaleztatzeko eta hedatzeko lanean hasteko unean. Ekimen horren helburua da leku horiek ez ezik, pixkanaka sartzeko diren beste leku batzuek ere memoriaren eta bake eta bizikidetzaren balioen transmisioaren espazio bilakatzea, gertatutakoa gogoratu eta gertaera haiek berriro ez daitezela.